622	<b>Konponketak eta kontserbazioa Reparaciones y conservación</b>		<b>2.792.012</b>	
6229	Bestelako ibilgetu materiala Otro inmovilizado material		2.792.012	
1	Lorezaintza. Jardinería.	455.841		
2	Garbiketa. Limpieza.	667.603		
3	Egitura mekaniko-elektroaren mantentzea. Mantenimiento mecánico-eléctrico.	438.657		
4	Igogailuak. Ascensores.	78.626		
5	Zaintza. Vigilancia.	467.366		
6	Telefonia. Telefonía.	46.534		
7	Zenbait elkarte. Gremios varios.	637.385		
623	<b>Profesional independenteen zerbitzuak Servicios de profesionales independientes</b>		<b>386.705</b>	
1	Notaritzak eta Merkataritzako Erregistroa. Notaría y Registro.	3.624		
2	Aholkularitza ekonomikoa eta auditoretza. Asesoría económica y auditoría.	11.678		
3	Kalitatezko aholkularitza eta auditoretza. Asesoría de calidad y auditoría.	3.668		
4	Aholkularitza teknikoa. Asesoría técnica.	74.640		
5	Gela kudeaketa. Gestión de salas.	102.255		
6	Informatika-zerbitzuak. Servicios informáticos.	84.331		

GASTUAK GASTOS		PARTIDA PARTIDA	KONTUA CUENTA	EPIGRAFEA EPIGRAFE
7	Lanerako prestakuntza. <i>Formación laboral.</i>	46.028		
8	Aholkularitza fiskala eta merkataritza. <i>Asesoría fiscal y mercantil.</i>	60.481		
<b>624</b>	<b>Garraioak</b> <b>Transportes</b>		<b>57.325</b>	
<b>625</b>	<b>Aseguru-primak</b> <b>Primas de seguros</b>		<b>132.809</b>	
<b>626</b>	<b>Banku-zerbitzuak eta antzekoak</b> <b>Servicios bancarios y similares</b>		<b>927</b>	
<b>627</b>	<b>Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak</b> <b>Publicidad, propaganda y relaciones públicas</b>		<b>118.284</b>	
6270	Publizitatea eta propaganda <i>Publicidad y propaganda</i>		118.284	
<b>628</b>	<b>Hornigaiak</b> <b>Suministros</b>		<b>702.769</b>	
6289	Bestelako hornidurak <i>Otros suministros</i>		702.769	
1	Energia. <i>Energía.</i>	583.966		
2	Ura. <i>Agua.</i>	93.732		
3	Gasa. <i>Gas.</i>	21.527		
4	Erregaia. <i>Combustible.</i>	3.544		
<b>629</b>	<b>Bestelako zerbitzuak</b> <b>Otros servicios</b>		<b>136.406</b>	
6290	Lokomozioa eta egonaldi-gastuak <i>Locomoción y gastos de estancia</i>		38.032	
6291	Bulegoko materiala <i>Material de oficina</i>		22.837	
6292	Komunikazio telefonikoak, informatikoak, telematikoak eta beste batzuk <i>Comunicaciones telefónicas, informáticas, telemáticas y otras</i>		39.137	
1	Telefono, fax eta mezularitza. <i>Teléfono, fax y mensajería.</i>	39.137		
6294	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak <i>Prensa, revistas, libros y otras publicaciones</i>		3.650	
6299	Bestelako hainbat zerbitzu <i>Otros servicios diversos</i>		32.750	
3.	TRIBUTUAK TRIBUTOS			280.000
<b>631</b>	<b>Bestelako tributuak</b> <b>Otros tributos</b>		<b>280.000</b>	
<b>III.</b>	<b>GASTU FINANTZARIOAK</b> <b>GASTOS FINANCIEROS</b>			<b>720.000</b>
2.	HIRUGARRENEKIKO ZORRENAK POR DEUDAS CON TERCEROS			720.000
<b>662</b>	<b>Zorren interesak</b> <b>Intereses de deudas</b>		<b>720.000</b>	
6623	Kreditu-erakundeekiko zorren interesak <i>Intereses de deudas con entidades de crédito</i>		720.000	
<b>VI.</b>	<b>USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXU POSITIBOAK</b> <b>FLUJOS POSITIVOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN</b>			<b>6.198.517</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b> <b>TOTAL GASTOS</b>				<b>12.960.000</b>

DIRU-SARRERAK INGRESOS		PARTIDA PARTIDA	KONTUA CUENTA	EPIGRAFEA EPIGRAFE
<b>I.</b>	<b>NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA IMPORTE NETO DE LA CIFRA DE NEGOCIOS</b>			<b>11.645.000</b>
1.	SALMENTAK VENTAS			3.625.000
707	<b>Eraikuntza, lur eta beste batzuen salmentak Venta de construcciones, terrenos y otros</b>		<b>3.625.000</b>	
7070	Eraikuntza eta lurren salmentak Ventas de construcciones y terrenos		3.625.000	
1	Ekitaldian salgai dauden lursailak eta eraikinak. Parcelas de terreno y edificios a vender en el ejercicio.	3.625.000		
2.	ZERBITZU-EMATEAK PRESTACIONES DE SERVICIOS			8.020.000
705	<b>Zerbitzu-emateak eta errentamenduak Prestaciones de servicios y arrendamientos</b>		<b>8.020.000</b>	
7051	Zerbitzu-emateak eta errentamenduak beste batzuei Prestaciones de servicios y arrendamientos a otros		8.020.000	
1	Komunitate gastuen eragina. Repercusión gastos de comunidad.	1.790.644		
2	Bestelako diru-sarrerak. Otros ingresos.	92.252		
3	Diru-sarrerak higiezin errentamenduengatik. Ingresos por arrendamientos de inmuebles.	6.137.104		
<b>IV.</b>	<b>USTIAPENENKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE EXPLOTACIÓN</b>			<b>740.000</b>
740	<b>Ustiapenerako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak Subvenciones, donaciones y legados a la explotación</b>		<b>740.000</b>	
7402	Ustiapenerako bestelako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak Otras subvenciones, donaciones y legados a la explotación		740.000	
1	Beste batzuk. Otras.	740.000		
<b>V.</b>	<b>SARRERA FINANTZARIOAK INGRESOS FINANCIEROS</b>			<b>75.000</b>
2.	BALORE NEGOTIAGARRI ETA BESTELAKO FINANTZA-TRESNENAK DE VALORES NEGOCIABLES Y OTROS INSTRUMENTOS FINANCIEROS			75.000
769	<b>Bestelako sarrera finantzarioak Otros ingresos financieros</b>		<b>75.000</b>	
7690	Interes finantzarioak Intereses financieros		75.000	
<b>VI.</b>	<b>ORDAINTZEKO KONTUEN GEHIKETA ETA KOBRATZEKO KONTUEN GUTXITZE GARBIAK AUMENTO CUENTAS A PAGAR Y DISMINUCIÓN CUENTAS A COBRAR NETOS</b>			<b>500.000</b>
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA TOTAL INGRESOS</b>				<b>12.960.000</b>



# Parke

EUSKADIKO  
PARKE  
TEKNOLOGIKOAK

BIZKAIA

## 1. ENTITATEAREN JARDUERA OROKORRAK

PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A. sozietatea enpresa publikoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailari atxikitakoa. Irailaren 24ko 288/1985 Dekretuak sozietatearen sorrera baimendu zuen, eta 1985eko irailaren 30ean eratu zen modu formalean.

Jaurlaritzaren Industria eta Teknologia Politikaren baitan euskal sektore publikoak sustatutako Teknologia Parkea politika horren beste tresna gisa sortu zen. Bere helburu soziala ekimen eta inbertsio industrialak suspertu eta sustatzea da, goi-mailako teknologiako enpresak ez ezik, eduki berritzaile handiko industria- nahiz zerbitzu-jarduerak ezartzea ahalbidetuko duen azpiegitura sortuz; era berean, unibertsitatearen, zentro teknologikoen eta enpresen artean teknologia eta ezagutza eskualdatzea bultzatzea du xede

Kapital soziala honela banatzen da:

PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN	%
Eraldaketa Lehiakorrerako Elkartea, S.A. Sociedad para la Transformación Competitiva, S.A.	67,26
Bizkaiko Foru Aldundia Excm. Diputación foral de Bizkaia	18,02
Azpiegiturak, S.A.	11,82
Zamudioko Udala Ayuntamiento de Zamudio	0,28
EHU/UPV	2,62
<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>100,00</b>

2017an zehar, Euskadiko gainerako Teknologia Parkeekin batera, hausnarketa estrategikoa egin da Misioa berrikusteko, honako baldintza hauetan:

## 1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

La sociedad PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A. es una Empresa Pública adscrita al Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuya constitución, autorizada por Decreto 288/1985 del 24 de Septiembre, se materializó formalmente el 30 de septiembre de 1985.

El Parque Tecnológico, promocionado por el Sector Público Vasco dentro del marco de la Política Industrial y Tecnológica del Gobierno, se creó como un instrumento más de la misma, con el objeto social de estimular y promover la iniciativa y la inversión industrial, mediante la creación de una infraestructura y la dotación de equipamientos que posibiliten la implantación de Empresas de alta tecnología, junto con actividades industriales y de servicios de alto contenido innovador, y, al mismo tiempo, potenciar la transferencia de tecnología y de conocimiento entre la Universidad, los Centros Tecnológicos y las Empresas.

El capital social se distribuye de la forma siguiente:

Durante el año 2017, junto con el resto de la Red de Parques Tecnológicos de Euskadi, se ha realizado un proceso de reflexión estratégica en el que ha sido revisada la Misión, en los siguientes términos:

“Euskadin berrikuntza eta garapen teknologikoaren eragile katalizatzailea izatea, enpresen, eragile teknologikoen eta unibertsitateen arteko ezagutzaren trukea eta transferentzia teknologikoa ahalbidetuz, enpresa berritzaileen sorrera eta hazkundea lagunduz eta era jasangarrian, balio erantsiko zerbitzuak eta kalitateko instalazioak eta espazioak eskainiz.

Misioa eta misiotik eratorritako planak erabat koherenteak dira Eusko Jaurlaritzak aurrekontuetarako ezarri dituen jarraibideekin, hala nola, epe ertaineko planak urtero zehaztea, eta, azken finean, Jaurlaritzaren ekintza, helburuak eta baita estrategia hedatzea ere.

“Ser un agente catalizador de la innovación y el desarrollo tecnológico en Euskadi, favoreciendo el intercambio del conocimiento y la transferencia tecnológica entre empresas, agentes tecnológicos y universidades, impulsando la creación y el crecimiento de empresas innovadoras y ofreciendo espacios e instalaciones de calidad y servicios de valor añadido, de manera sostenible.”

Esta misión y los planes que de ella emanan para la Sociedad son plenamente coherentes con las Directrices presupuestarias, marcadas por el Gobierno Vasco, Directrices que son la concreción anual de los Planes a medio plazo y, en definitiva, de la acción de Gobierno, sus Objetivos y el despliegue de su Estrategia.

## 2. 2017KO LORPEN NAGUSIAK

## 2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2017

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Ezarritako helburuekin bat eginez, hauek izan dira gauzatu diren jarduera nagusiak:</p> <p><b>1. TEKNOLOGIA ETA ENPRESENTZAKO EREMUAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egoitza/campus berriak:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Abanto: Laugarren hiruhilekoan, balioan jarriko dela iragarri ondoren, sektorea urbanizatzeko lanen lizitazio-prozesua abiarazi zen, beharrezko baliabideen zuzkidurarekin, Bazkideen ekarpenen bitartez. Campus berri hori Ezkerraldea-Meatzaldeako enpresen beharrei erantzuteko sortu da, energiaren sektoreari begira, enpresa-kontzeptu mistoarekin, 4.0 industriako enpresa ekoizleak hartzen dituelarik, baita, Bilboko Portutik hurbil egonik, azpiegitura horretatik hurbil egotea eskatzen duten enpresen beharrei erantzuteko ere.</li> <li>2. Zorrozaurre: 2017an, hainbat batzar egin dira Hiri Parke Teknologiko berriaren eragile sustatzaileekin, parkearen garapena bideratzeko; lehendabiziko fase hauetan, eremuaren kudeaketa-ereduari dagokion erabakiak eta Parke Teknologikoaren parte-hartzeak baldintzatuta dago parkearen garapena.</li> </ol> </li> <li>• Lursaila               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zamudio, Aresti: UE-1 Egikaritze-unitatea bi unitate independentetan banatzeko hirigintzako beharrezko izapideekin jarraitu da.</li> </ol> </li> </ul>		<p>En consonancia con los objetivos fijados las principales realizaciones del ejercicio han sido las siguientes:</p> <p><b>1. ESPACIOS PARA LA TECNOLOGÍA Y LA EMPRESA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nuevas sedes/Campus:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Abanto: A lo largo del cuarto trimestre, tras el anuncio de su puesta en valor, se inicia el proceso de licitación de las obras de urbanización del sector con la dotación de los recursos necesarios mediante las aportaciones de los Socios. Este nuevo campus surge para dar respuesta a las necesidades empresariales de Ezkerraldea- Meatzaldea, con una orientación hacia el sector energético, como concepto mixto empresarial acogiendo empresas productoras de la industria 4.0 y también, por su proximidad al Puerto de Bilbao, para dar respuesta a necesidades empresariales que demanden proximidad a esta infraestructura.</li> <li>2. Zorrozaurre: En 2017 se han producido reuniones para orientar su desarrollo con los distintos agentes promotores del nuevo Parque Tecnológico Urbano, que está condicionado, en estas primeras fases, por la toma de decisión en cuanto al modelo de gestión del ámbito y la participación del Parque Tecnológico.</li> </ol> </li> <li>• Terreno:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zamudio Aresti: Se ha continuado con los trámites urbanísticos necesario para dividir la Unidad de ejecución UE-1 en dos unidades independientes.</li> </ol> </li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2. . Zamudio Agarre: Zamudioko Udalarekin harremanetan jarraitzen da, etorkizunean balioa emateko eginkizunean aurrera egiteko helburuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Urbanizazioa:           <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Abanto: Sektorerako sarbideen proiektuaren zein urbanizazioko lehendabiziko faseen lizitazio-prozesua abiarazi da.</li> <li>2. Geldo: Sozietateak sektoreko gaur egungo lurjabeetako batekin hartutako konpromisoak betez, eta bezero berrien aldetik egon daitezkeen lurzoru-eskari berrien aurrean, geldi mantendu da urbanizazio-obrak hasteko lehiaketa.</li> <li>3. Aresti UE1/UE3: Kudeatzeko aurkeztu dira sektoreko urbanizazio- eta birpartzelatze-proiektuak.</li> </ol> </li> <li>• Eraikinak eta instalazioak:           <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Parke Zientifikoko egoitza den eraikinaren barrualdea egokitu da (1. eta 2. solairuak), Enpresak eta Ikerkuntza-zentroak han jartzeko, eta eraikinaren % 70 okupatzera iritsi da.</li> <li>2. 407 eta 501B eraikinetan enpresak ezartzeko espazioak egokitu dira, eta okupazio-maila handia lortu da.</li> <li>3. Dagoeneko erosi dira Fabrikazio Aurreratuko Zentroko (CFAA) jarduerak garatzeko makinaria espezializatua eta elementu osagarriak, eta justifikatu da ekonomikoki haiei dagokien diru-laguntza organismo sustatzaileen aurrean.</li> <li>4. Instalazioak modernizatzen, komunikazioetako sistema aurreratuetara, eta beste hainbatetara bideratutako beste inbertsio batzuk egin dira.</li> </ol> <p>Hori guztia, aldi berean, ondoko plataforma teknologikoak garatu ahal izateko: ekintzailatza eta enpresen sorreraren arloan, BIC BIZKAIA; fabrikazio aurreratuko arloan, AFAZ; bokazio zientifikoen sustapenaren alorrean, BTEK; eta UPV/EHUren Zientzia Parkearen (Leioa) barruan, Biofisika Bizkaia Fundazioa, Unibertsitateko Plataformen eraikina eta Animalien Bioteknologia Zentroa, besteren artean.</p> <p><b>2. BERRIKUNTZAREN SUSTAPENA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lankidetzaren zein sareak sustatzea eta teknologia eskualdatzea.</li> </ul> </li> </ul>		<p>2. Zamudio Agarre: se mantienen los contactos con el Ayuntamiento de Zamudio, al objeto de ir avanzando hacia su futura puesta en valor.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Urbanización:           <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Abanto: Se ha iniciado el proceso de licitación tanto del proyecto de accesos como de las primeras fases de urbanización del sector.</li> <li>2. Geldo: En cumplimiento de los compromisos adquiridos por la Sociedad, con uno de los actuales propietarios de suelo del sector y ante la posible demanda de suelo por parte de nuevos clientes se ha mantenido en cartera el concurso para el inicio de las obras de urbanización.</li> <li>3. Aresti UE1/UE3: Se han presentado para su gestión los proyectos de Urbanización y parcelación del sector.</li> </ol> </li> <li>• Edificios e instalaciones:           <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Se ha producido el acondicionamiento interior del edificio Sede en el Parque Científico (planta 1ª y 2ª), para la instalación de Empresas y Centros de Investigación, hasta alcanzar el 70% de ocupación del edificio.</li> <li>2. Se han acondicionado espacios para la instalación de empresas en los edificios 407 y 501B llegando a niveles de ocupación significativos en los mismos.</li> <li>3. Finalizada la adquisición de maquinaria especializada y elementos accesorios, para el desarrollo de las actividades del Centro de Fabricación Avanzada (CFAA) y justificada económicamente su subvención ante los organismos promotores.</li> <li>4. Se han realizado otra serie de inversiones destinadas a la modernización de instalaciones, sistemas avanzados de comunicaciones, etc.</li> </ol> <p>Todo ello posibilitando, a su vez, el desarrollo de plataformas tecnológicas como son: en el área del emprendimiento y la creación de empresas, BIC BIZKAIA, en el área de la Fabricación avanzada, CFAA, en el campo del fomento de las vocaciones científicas, BTEK y dentro del Parque Científico de UPV-EHU en Leioa, la Fundación Biofísica Bizkaia, el edificio de Plataformas Universitarias y el Centro de Biotecnología Animal, entre otras.</p> <p><b>2. PROMOCIÓN DE LA INNOVACIÓN</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Fomento de colaboraciones - redes y transferencia de tecnología.</li> </ul> </li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. Euskadiko Teknologia Parkeak: Plan Estrategikoak markatutako jarraibideak aplikatzea, sareko funtzionamenduarekin, zeharkako norabideak ezarrita eta laneko ekipoak integratuta.</p> <p>2. Era aktiboan parte hartzea Espainiako Parke Teknologikoen Sarean (APTE), Teknologia Transferitzeko Sarearen (RTT) bitartez eta APTE Sarearen batzorde betearazlean parte hartuta. Jardunbide Onenaren 2017ko saria, eta Parke Teknologikoen arteko lankidetzak bultzatzeko Programan parte-hartzea.</p> <p>3. Horrez gain, Parke Teknologikoen Nazioarteko Elkarteko (IASP) eta elkartearen barruan sortutako azpi-sareetako gure parte-hartzea bultzatu da. Parkeen lidergoa eta ikusgarritasuna bultzatu da Inspiring Solutions Program programaren munduko finalista gisa, eta IASP elkartearen 2017ko nazioarteko biltzarrean paper bat argitaratuta eta aurkeztuta</p> <p>4.- Stakeholder gisa parte hartzea EEN (Enterprise Europe Network) Sarearen Euskal Kontsorzioan, enpresei Europatik hurbilagoko posizioa eskaintzeko.</p> <p>5. Lankidetzak-hitzarmenak balioestea eta erreferentziazko elkarteekin batera jardutea, mugikortasun jasangarria hobe dadin Parkean (Alphabet eta Eusko Jaurlaritzan), Lanbide Heziketa sustatzea (Ikaslan eta Hetel) eta Parkeko profesionalak gaitzea (Deusto Business School), besteak beste.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Parkea osatzen duten campusetan dauden erakundearen arteko lankidetzak eta sinergiak eta baterako jarduketak bultzatzea. (enpresa z.).</li> <li>• OTEBen sorkuntza eta garapena bultzatzea eta sektore teknologiko berriak indartzea, Bic Bizkaia inkubazio-eredu aurreratuko zentroari balioa emanda; Parkeen Estatuko Elkartearen (APTE) Jardunbide Onenaren 2016ko saria eman zion zentro horri.</li> </ul> <p>1. Baterako jarduerak bultzatzea eta Parkearen eta Bic Bizkaia arteko lankidetzak eta sinergiak bilatzea.</p> <p>2. Parte-hartzea bultzatzea eta zentroaren jardura zein bertan kokatutako enpresen ikusaraztea.</p> <p>3. Bic Bizkaia zentroan erakunde berriak kokatzeko mekanismo berriak bilatzea eta erakunde horiek Parkera irteeta.</p>	<p>10</p>	<p>1. Parques Tecnológicos de Euskadi: Aplicación de las directrices marcadas por el Plan Estratégico, con el funcionamiento en RED, el establecimiento de Direcciones transversales y la integración de equipos de trabajo.</p> <p>2. Participación activa en la Red de Parques Tecnológicos españoles, APTE, a través de la Red de Transferencia de Tecnología (RTT) y participación en el comité ejecutivo de APTE. Premio Mejor práctica 2017 y participación en el Programa para impulsar la colaboración entre Parques Tecnológicos.</p> <p>3. Adicionalmente, se ha impulsado nuestra participación en la Asociación Internacional de Parques Tecnológicos, IASP y en las subredes creadas dentro de la asociación. Impulso al liderazgo y visibilidad de los Parques como finalistas mundiales del Inspiring Solutions Program y con la publicación y ponencia de un paper en la conferencia internacional IASP 2017.</p> <p>4. Participación como stakeholders en el Consorcio Vasco de la Red EEN (Enterprise Europe Network), para ofrecer a las empresas una posición más cercana a Europa.</p> <p>5. Puesta en valor de los convenios de colaboración a través de actuaciones conjuntas con entidades de referencia para la mejora de la movilidad sostenible en el Parque (Alphabet y Gobierno Vasco), el impulso a la FP (Ikaslan y Hetel), capacitación de los profesionales del Parque (Deusto Business School), entre otros.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Impulso a la colaboración y búsqueda de sinergias y actuaciones conjuntas entre las entidades ubicadas en los distintos campus que integran el Parque. (n. empresas).</li> <li>• Impulso a la creación y desarrollo de NEBTs y a la potenciación de nuevos sectores tecnológicos, a través de la puesta en valor del centro de incubación avanzada Bic Bizkaia, galardonado con el premio a la Mejor Práctica de la Asociación estatal de Parques, APTE 2016.</li> </ul> <p>1. Fomento de actividades conjuntas y búsqueda de colaboraciones y sinergias entre entidades del Parque y Bic Bizkaia.</p> <p>2. Fomento de la participación y visibilidad de la actividad realizada en el centro y por las empresas en él instaladas.</p> <p>3. Búsqueda de nuevos mecanismos para la instalación de nuevas entidades en Bic Bizkaia y salida de las mismas al Parque.</p>



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezagutza eskualdatzeko eta berrikuntzako ekimenak eta proiektuak:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Cross Mentoring Parkean ekimena abiaraztea eta martxan jartzea, batetik, talentua sustatzeko eta, bestetik, profesionalen eta Parkeko enpresen artean ezagutza trukatzeko. 2017an abiarazi da programa pilotua, Parkean dauden erakundeetako profesionaleri bakarrik zuzenduta.</li> <li>2. Parke App aplikazioa eta Speak &amp; Ikasi aplikazioak martxan jartzea, Parkeko enpresen eta profesionalen artean komunikazioa, informazio-fluxua eta hizkuntzen elkartrukea sustatzeko.</li> <li>3. Talentia Challenge proiektua martxan jartzea eta proiektu horretan parte hartzea, berrikuntza arloak Parkeko erakundeei eskainitako zerbitzuak optimizatzeko.</li> <li>4. Bizkaiko azkeneko edizioan, Erronka bat Parkearentzat ekimena irabazi zuen Parke Anual Meeting ekimena bultzatzea.</li> <li>5. Zero Hytechpark (Life +) eta EMPLOY (Long Life Learning, Leonardo) proiektu europarrak balioestea.</li> <li>6. Administrazio publikoekin elkarlanean ari diren eragileak: MINECO Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioarekin lankidetzan jarraitzen dugu (orain Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa), bai eta Parkeko enpresa eta zentro teknologikoen espedienteak izapidetzen ere.</li> </ol> </li> <li>• Berrikuntzaren eta lehiakortasunaren kultura sustatzea eta hedatzea.               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Era askotako jardunaldiak eta gertaerak antolatu dira kultura berritzailea, ezagutza eta teknologiaren transferentzia eta Parkeko enpresen artean sinergiak sortzeko lankidetzako ingurune baten sorkuntza sustatzeko.</li> <li>2. Erakundeentzako interesekoak diren gaien inguruko gertaerak eta jardunaldiak antolatzen jarraitu da, Parkeko profesionalen lidergoa, berrikuntza eta talentua bultzatzen lagunduko dutenak. Halaber, erakundeentzako interesekoak diren gaiei buruzko berriarazko ikastaroak antolatu dira, hainbat erakunderekin lankidetzan; CEBEK eta PMPrekin, esaterako.</li> </ol> </li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Iniciativas y Proyectos de innovación y transferencia de conocimiento:               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Lanzamiento y puesta en marcha de la iniciativa Cross Mentoring Parkean, para el impulso del Talento y el intercambio de conocimiento entre profesionales y empresas del Parque. El programa piloto se ha lanzado en 2017 dirigido en exclusiva a los profesionales de las entidades ubicadas en el Parque.</li> <li>2. Puesta en marcha de la aplicación Parke App y aplicación Speak &amp; Ikasi para promover la comunicación, el flujo de información y el intercambio de idiomas entre las empresas y profesionales del Parque.</li> <li>3. Puesta en marcha y participación en el proyecto Talentia Challenge para optimizar la cartera de servicios ofrecidos a las entidades del Parque desde el área de innovación.</li> <li>4. Impulso a la iniciativa Parke Anual meeting, ganadora iniciativa Un reto para el Parke en su última edición en Bizkaia.</li> <li>5. Puesta en valor del proyecto europeo Zero Hytechpark (Life +) y EMPLOY (Long Life Learning, Leonardo).</li> <li>6. Agentes colaboradores de las Administraciones públicas: se continúa con la labor como entidad colaboradora del Ministerio de Economía y Competitividad MINECO (ahora Ministerio de Economía, Industria y Competitividad), con la tramitación de expedientes de empresas y CCTT del Parque.</li> </ol> </li> <li>• Promoción y difusión de la cultura de la Innovación y la competitividad.               <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Se han organizado jornadas y eventos de diversa tipología para la promoción de una cultura innovadora, la transferencia del conocimiento y tecnología, y la creación de un entorno colaborativo para la generación de sinergias entre empresas del Parque.</li> <li>2. Se ha continuado con la organización de eventos y jornadas en temáticas de interés para las organizaciones que contribuyan a impulsar el liderazgo, la innovación y el talento de los profesionales de los Parques. Así mismo, se han organizado cursos específicos sobre temáticas de interés para las organizaciones en colaboración con entidades como CEBEK o PMP.</li> </ol> </li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>3. Parke teknologikoekin, 4.0 industriarekin eta ekintzailetasunarekin lotutako gaiei buruzko nazio eta nazioarte mailako erreferentziatzko kongresu eta mintegietan Parke Teknologikoa nazioarteko eredu eta erreferente gisa aurkezteko eta horietan parte hartzeko lan egin da.</p> <p>4. Lankidetzeta-inguruneak proiektua bultzatu da, bere jarduerarekin Cross Mentoring Parkean proiektuaren bitartez jarraitzen duena.</p> <p>5. Aula Parques-Deusto Business School ekimena antolatzea eta horrekin jarraitzea, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, lidergoari eta berrikuntzari buruzko beste bi saioekin.</p> <p>6. Enpresen I+G+b arloaren finantzazio-iturriak eskuratzeko bideak errazten jarraitzen da.</p> <p>7. Zientzia eta Teknologia zabaltzea, komunikatzea eta gizarteratzea, BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroaren bitartez, bere ohiko jardueren bitartez; gainera, honako hauek formalizatu eta antolatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Intereseko eta gaurkotasunezko gaiei buruzko Jardunaldi Monografikoak.</li> <li>- Udalekuak udako hilabeteetan, Parkeko langileen familientzako.</li> <li>- Zentro Teknologikoekin akordioak euren jarduerak hedatzeko.</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresak nazioartekotzeko laguntza, haien esku jarrita nazio eta nazioarte mailako Parke Teknologikoekin dauden lankidetzeta-hitzarmenak eta Parkea kide den sareen bitartez garatutako nazioarteko misioetatik eta jardueretatik eratorritako kontaktuak.</li> <li>• Komunitate jasagarria eta parte-hartzailea bultzatzea, honako hauen bitartez: <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Parkeko sozietate kudeatzaileak berak garapen iraunkorreko ekintza berriak gauzatzea.</li> <li>2. Bioeskola BBK proiektuaren jarduera.</li> </ol> </li> </ul> <p><b>3. PROIEKZIO EKONOMIKO PROAKTIBOA</b></p> <p>Parkearen eta Euskadiren irudia gune erakargarri gisa sustatzeko ekintzak.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Batez ere ordezkariak instituzionalen, enpresa-ordezkaritzen eta akademikoen nazio eta nazioarte mailako bisitei harrera egitea.</li> </ol>		<p>3. Se ha impulsado la participación y presentación del Parque Tecnológico como modelo y referente internacional en distintos congresos y seminarios de referencia a nivel nacional e internacional sobre temáticas relacionadas con parques tecnológicos, industria 4.0., o emprendimiento.</p> <p>4. Se ha impulsado el proyecto Entornos colaborativos, que continúa su actividad a través del proyecto Cross Mentoring Parkean.</p> <p>5. Organización y continuación de la iniciativa Aula Parques-Deusto Business School, en colaboración con la Universidad de Deusto, con dos nuevas sesiones sobre liderazgo e innovación.</p> <p>6. Se continúa con la facilitación del acceso a las fuentes de financiación de la I+D+i empresarial.</p> <p>7. Divulgación, comunicación y socialización de la Ciencia y Tecnología mediante el Centro para la Interpretación de la Tecnología BTEK, a través de sus actividades habituales y además se han formalizado y organizado:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jornadas Monográficas sobre temáticas de interés y actualidad.</li> <li>- Campamentos de verano o Udalekus en los meses estivales para las familias de los trabajadores del Parque.</li> <li>- Acuerdos con CCTT para la difusión de su actividad.</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Apoyo a la internacionalización de las empresas, poniendo al servicio de éstas acuerdos de colaboración con Parques Tecnológicos nacionales e internacionales y los contactos derivados de la atención de misiones internacionales y la actividad internacional desarrollada a través de las distintas redes en las que participa el Parque.</li> <li>• Impulso a una comunidad sostenible y participativa a través de: <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Nuevas acciones en materia de Desarrollo Sostenible por parte de la propia Sociedad Gestora del Parque.</li> <li>2. Actividad proyecto Bioeskola BBK.</li> </ol> </li> </ul> <p><b>3. PROYECCIÓN ECONÓMICA PROACTIVA</b></p> <p>Se continúa con la realización de acciones de promoción de la imagen del Parque y de Euskadi como espacio atractivo y de excelencia a través de:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Recepción de visitas nacionales e internacionales de Delegaciones institucionales, empresariales y académicas preferentemente.</li> </ol>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2. Nazioko zein nazioarteko hedapen-ekintza, foro eta kongresuetan parte-hartzea eta horiek antolatzea, Parkearen irudia proiektatzeko eta bertan kokatutako erakundeak ikusarazteko.</p> <p>3. INVEST IN BASQUE COUNTRY programaz baliatzea Parkearen irudia sustatzeko.</p> <p>4. Parkearen eredua esportatzea.</p> <p>5. Intereseko ekitaldiak gauzatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Parkean garatzen diren jarduketak komunikatzeko eta haiei ikusgarritasun handiagoa emateko ekintzak bultzatzea.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Euskadiko Parkeen irudi korporatibo berdingabea bultzatzea.</li> <li>Komunikazio-plan berriak garatzea.</li> <li>Komunikaziorako plan zehaztua egitea eta ildo hori hainbat euskarritan islatzea, hala nola webgune berriak, argitalpenetan (besteak beste, Euskotek) eta sare sozialetan dugun presentzia indartzen duten jardueretan</li> </ol> <p><b>4. MERKATARITZA-POLITIKA ETA ZERBITZUEN PRESTAZIOA</b></p> <p>2017ko lehenengo seihilekoan Euskadiko Parke Teknologikoen Sarerako 2017-2020 aldirako Plan Estrategiko berria egin da. Diseinu estrategikoko prozesu berri hori egin da 2017-2020 ekitaldietarako ekintza plan batez gain, eta sozietatearen negozio-ereduaren eta antolamenduaren definizioa garatu ditu, dagokion aldirako helburu estrategikoak ezarri, kuantifikazio ekonomikoa eta aurrekontua egin eta kudeaketarako adierazle berriak ezarri ditu.</p> <p>2017an egindako jarduketa nagusien berrikuspena kontuan hartuko da 2017ko aurrekontuan sartuko diren adierazleetan, eta 2018rako Helburuen berriazko atalaren barruan utziko da helburu berrien garapena.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Merkaturatzea: <ol style="list-style-type: none"> <li>Bereziki interesgarria eta aipatzekoa da Sarerako zeharkako izaera duen Negozio Garapenerako eta Marketin Korporatiboko berriazko saila sortu dela; sail horren egiteko nagusia izango da Enpresa Berriak erakartzea modu proaktiboan.</li> <li>Alokairu eta salmentengatiko diru-sarreraren helburuak bete dira: 11 milioi euro.</li> </ol> </li> </ul>	<p>11</p>	<p>2. Participación y organización de actos de difusión, foros y congresos nacionales e internacionales para proyectar la imagen del Parque y visibilizar a las entidades en él ubicadas.</p> <p>3. Aprovechar el programa INVEST IN BASQUE COUNTRY, para potenciar la imagen del Parque.</p> <p>4. Exportación del modelo de Parque.</p> <p>5. Celebración de eventos de interés.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Impulso a las acciones de comunicación y mayor visibilización de las actuaciones desarrolladas en el Parque.</li> </ul> <ol style="list-style-type: none"> <li>Potenciar la imagen corporativa única de los Parques de Euskadi.</li> <li>Desarrollo de nuevos Planes de Comunicación.</li> <li>La realización de un plan pormenorizado de comunicación que se plasme en la creación de una nueva web, el rediseño de distintas publicaciones como Euskotek y actuaciones que potencien nuestra presencia en redes sociales.</li> </ol> <p><b>4. POLÍTICA COMERCIAL Y PRESTACIÓN DE SERVICIOS</b></p> <p>Durante el primer semestre de 2017 se ha realizado, para la Red de Parques Tecnológicos de Euskadi, un Plan Estratégico nuevo para el periodo 2017-2020. Este nuevo proceso de diseño estratégico que adicionalmente a la generación de un plan de acción para los ejercicios 2017-2020, ha desarrollado la definición del modelo de negocio y de organización de la sociedad, el establecimiento de objetivos estratégicos del periodo su cuantificación económica y presupuestaria, y el establecimiento de nuevos indicadores de gestión.</p> <p>La revisión de las principales realizaciones del 2017 van a ser referenciadas a los indicadores incluidos en el presupuesto 2017, dejando el desarrollo de los nuevos objetivos dentro del apartado específico de Objetivos para 2018.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Comercialización: <ol style="list-style-type: none"> <li>Resulta de especial interés la creación de un área específica de Desarrollo de Negocio y Marketing Corporativo de carácter transversal para la Red y cuyo principal cometido es promover proactivamente la atracción de Nuevas Empresa.</li> <li>Se han alcanzado los objetivos de ingresos por arrendamiento y venta, 11 millones de Euros.</li> </ol> </li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>3. Ezarritako enpresak, 245 baino gehiago dira.</p> <p>4. 8.500 enplegatu baino gehiago dago Parkean.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Enpresei eskaintako zerbitzuak hobetzea.</li> </ul> <p>1. Topaketa ugari egin da Parkea osatzen duten enpresekin, hala nola egindako hausnarketa estrategikoa publikoki komunikatzeko, bezeroen leialtasuna lortzeko banan banako harremanak enpresarekin eta haien etorkizuneko beharrak ezagutzeko; Parkearen Kudeaketa lanari buruz duten pertzepzioaren eta beren negozioa indartzeko egin dezakeenaren ebaluazioa ere egin da.</p> <p>2. Hainbat zerbitzu-ekimen berri jarri da martxan, Parkeetako enpresetarako; honako hauek nabarmen daitezke:</p> <p>Parkeko Langileen Kluba jarri da martxan; baterako ekimena da, kirol-instalazioak garatzeko eta kudeatzeko profesionalak itun bidez egin dena Derioko Seminarioko zonarako, eta enpresetako langileei Parke Teknologikoko ingurunearen parte diren sentipena indartzeko aukera emango diena.</p> <p>Bisitei arreta emateko sistema berria BTEKen, era horretako interpretazio-zentroyen kudeaketan espezialistak diren enpresekin egindako itun bidez; era horretan, baliabide propioak liberatuko ditugu parkeko bezeroen leialtasunerako, enpresetik lankidetzarako eta enpresetarako zerbitzuen beste sail berri baten garapenaren barruan.</p> <p>Ildo horretan, eta Bizkaian bederatzi urtez egin gabe egon ondoren, Gabonen aurreko garaian, Parkeko enpresa guztiak elkartu dituen gertaera bat ospatu da.</p> <p><b>5. FINANTZA-POLITIKA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Beste urte batez, autofinantzatzea lortu da, kutxa-fluxu positiboak lortuta, eta ez da beharrezkoa izan kreditu-erakundeekin zorpetzea, ezta inbertsio-plana partzialki finantzatzeko ere, zatirik handiengan bete delarik.</li> <li>Sozietatearen kudeaketa ekonomikoak zordunketa hiru bat milioi eurotan murrizteko baliabideak sortu ditu aurrean ere.</li> <li>Ekitaldian zehar, egindako gastuak lokalen okupazioan gertatu den gehikuntzaren eta bezero berrien ondoriozko diru-sarreretara egokitzea lortu da Jarduera modu positiboan garatu da eta, ondorioz, gastua proportzio horretan handitu da.</li> </ul>	<p><b>245</b></p> <p><b>8.500</b></p>	<p>3. Las Empresas instaladas, superan las 245.</p> <p>4. El empleo en el Parque supera las 8.500 personas.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Mejora de los servicios a Empresas.</li> </ul> <p>1. Se han realizado numerosos encuentros con las empresas integrantes de los Parques, desde la comunicación pública de la reflexión estratégica realizada, hasta contactos individualizados con empresarios para la fidelización de los clientes, el conocimiento de sus necesidades futuras o la evaluación de la percepción que tienen del trabajo realizado por la Gestión del Parque y como esta puede potenciar su negocio.</p> <p>2. Se han realizado varias iniciativas de servicio nuevas para las empresas de los Parques de las que podemos destacar las siguientes:</p> <p>Puesta en marcha de Club de Personas Trabajadoras del Parque, iniciativa conjunta mediante alianza con profesionales en el desarrollo y la gestión de instalaciones deportivas en la zona de Seminario en Derio y que proporcionará a las distintas plantillas de las empresas una oportunidad para afianzar el sentido de pertenencia al entorno Parque Tecnológico.</p> <p>Nuevo sistema de atención a las visitas en BTEK, mediante la alianza con empresas especialistas en la gestión de este tipo de centros de interpretación, de manera que liberamos recursos propios para la fidelización de los clientes del parque dentro del desarrollo de otra nueva área de cooperación y servicios a empresas.</p> <p>En esta línea y en Bizkaia, tras más de 9 años sin su realización, se ha celebrado un evento que ha congregado a las empresas del Parque, en el periodo prenavideño</p> <p><b>5. POLÍTICA FINANCIERA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Otro año más se ha conseguido la autofinanciación con generación de flujos de caja positivos, no habiendo sido necesario acudir al endeudamiento con entidades de crédito ni para financiar parcialmente el plan de inversiones, sustancialmente cumplido.</li> <li>La gestión económica de la sociedad ha generado recursos, un año más, para reducir el endeudamiento en aproximadamente 3 millones de euros.</li> <li>Durante el ejercicio se ha logrado acompasar los gastos incurridos a la generación de ingresos con motivo de los incrementos en la ocupación de locales y la incorporación de nuevos clientes. La actividad se desarrolla positivamente y en consecuencia el gasto aumenta en proporción.</li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> <li>• BIC Bizkaia eta CFAA proiektuetarako berariazko kudeaketa administratiboa eta finantzarioa.</li> <li>• BIC Bizkaia proiektuak, hiru urtez BEAZekin batera kudeatu ondoren, 2017an Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren finantzazioa beste lau urtez luzatzea lortu da; horrela, bermatuta geratu da ekimen arrakastatsua horren jarraitutasuna.</li> <li>• CFAA proiektuari dagokionez, 2017an amaitu da Zentroko jarduerak garatzeko makinaria espezializatua eta elementu osagarriak erostean, eta eskuratutako baliabideak agiri bidez justifikatu dira organismo sustatzaileen aurrean.</li> </ul> <p><b>6. ANTOLAKUNTZA ETA PERTSONAK: BARNE-KUDEAKETA HOBETZEA</b></p> <p>Egindako hausnarketa estrategikoko prozesuaren ondoren, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak antolamendu-eredu berria jarri du martxan, hiru Parkeen arteko koordinazioa, lankidetzeta eta sinergien aprobetxamendua hobetzen dituen, modu sortzailean baterako jarduketak eta ekimenak garatzen laguntzen duena, eta Sarea erakunde sozialki arduratsu gisa finkatzeko bidean aurrera egiten duena.</p> <p>Pertsonen osatutako lantaldeari dagokionez, hausnarketa-prozesutik sortutako helburua da ilusionatutako eta inplikaturako pertsonak lortzea; horretarako, antolaera berria aplikatuz sortutako beharrezko aldaketak egin dira, eta pertsonen gogobetetasunaren hasierako ebaluazioa egin da, horri buruzko berariazko inkesta batekin.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistemak: <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Sozietateak Kudeaketa Aurreratuaren Diploma eskuratu du, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen Kudeaketa Aurreratuaren Eredu berria kanpoan kontrastatzeko aurkeztu ondoren.</li> <li>2. Arrisku Penalak Kudeatzeko Eskuliburua onesteko prozesuaren ondoren jarriko da funtzionamenduan, langileei prestakuntza eskainiko zaie eta salaketa-kanala ezarriko da.</li> <li>3. Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformara sartzea.</li> </ol> </li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gestión administrativa y financiera específica para los proyectos BIC Bizkaia y CFAA.</li> <li>• BIC Bizkaia, tras los 3 años de gestión conjunta BEAZ, Parque, en 2017 se ha conseguido prorrogar la financiación de Gobierno Vasco y Diputación Foral durante 4 años más, garantizando la continuidad de la exitosa iniciativa.</li> <li>• CFAA durante 2017 se ha finalizado la adquisición de maquinaria especializada y elementos accesorios, para el desarrollo de las actividades del Centro y se han justificado documentalmente los recursos obtenidos ante los organismos promotores.</li> </ul> <p><b>6. ORGANIZACIÓN Y PERSONAS: MEJORA DE LA GESTIÓN INTERNA</b></p> <p>Tras el proceso de reflexión estratégica realizado, la Red de Parques Tecnológicos de Euskadi ha puesto en marcha un nuevo modelo organizativo, que favorece la coordinación, la colaboración y el aprovechamiento de sinergias entre los tres Parques, que contribuye al desarrollo de actuaciones e iniciativas conjuntas de manera creativa y que, avanza hacia la consolidación de la Red como una organización socialmente responsable.</p> <p>En relación con el equipo de personas, el objetivo surgido del proceso de reflexión es conseguir personas ilusionadas e implicadas, para lo que se han realizado los cambios necesarios surgidos de la aplicación de la nueva organización y se ha evaluado inicialmente la satisfacción de las personas con una encuesta específica al respecto.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistemas: <ol style="list-style-type: none"> <li>1. La sociedad ha obtenido el Diploma a la Gestión Avanzada tras presentarse al contratista externo del nuevo Modelo de Gestión Avanzada de la Red de Parques Tecnológicos de Euskadi.</li> <li>2. Puesta en funcionamiento tras el proceso de aprobación del Manual de Gestión de Riesgos Penales, con la formación del personal y el establecimiento del canal de denuncias.</li> <li>3. Incorporación plena a la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi.</li> </ol> </li> </ul>

### 3. 2018ko URTERAKO HELBURU NAGUSIAK ETA BERAUEN ZENBATEKOA

### 3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2018 Y SU CUANTIFICACIÓN

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2017-2020 aldirako egindako Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen Plan Estrategikoa zortzi helburu estrategikotan gauzatzen da, eta helburu horiek dira lehentasunezko jarduketa-ardatzak. Helburu horiek 20 ildo estrategikotan zehazten dira, dagozkien ekintza eta adierazleekin.</p> <p><b>1. INDARBERRITUTAKO GOBERNANTZA EREDUA</b></p> <p>1.1 Euskal Erakundeekiko hurbiltasun handiagoa bultzatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiekin eta Udalekin aldizkako batzarrak sistematizatzea lurralde bakoitzean, hurbiltasun-maila handiagoa bultzatzeko.</li> <li>• Enpresa-sustapenarekin lotutako lurzorua edo zerbitzuak kudeatzen dituzten erakunde publiko guztiekiko lankidetzak sistematizatzea, eskaintzak koordinatzeko eta sinergiak aprobetxatzeko.</li> <li>• Gertaera edo jardunaldien antolaketa bultzatzeko beharrezko bitartekoak sustatzea eta erraztea, Parkean beren enpresek egiten dutenaren zabalkundea egiteko eta gertaera horietan erakundeen parte-hartzea sustatzeko.</li> </ul> <p><b>2. ENPRESAK ERAKARTZEA ETA BEZEROEN LEIALTASUNA LORTZEA</b></p> <p>2.1 Enpresa berriak erakartzeko egitekoa era proaktiboan sustatzea (batez ere, erakundeen estrategiarekin eta RIS3 estrategiarekin bat etorritz).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskadirako proiektu estrategikoak identifikatzea eta atzematea Herrialdearen estrategia globalaren barruan, lan-metodologia sistematizatuta eta erakundeei misio komertzialetan eta bisita instituzionaletan lagunduta.</li> <li>• Sarearen gaitasunen mapa garatzea, Parke bakoitzeko eragileen ekosistemari balioa emanez, intereseko merkatuak eta lehentasunezko sektoreak identifikatuz, erakundeen estrategiarekin eta RIS3 estrategiarekin bat etorritz.</li> <li>• Negozioa Garatzeko Plan bat prestatzea, bezero potentzialengana hurbiltzeko aukera emango duena, ekintza hori erraztuko duten tresnak garatuz.</li> <li>• Enpresa berriak erakartzea bultzatuko duten aliantza estrategikoak ezartzea preskriptoreekin, pizgarrien politika bat eta finantzazio-formula alternatiboak garatuta.</li> </ul> <p>Lurzorua okupazio maila.</p>	<p style="text-align: center;">% <b>84</b></p>	<p>El Plan Estratégico realizado de la Red de Parques Tecnológicos de Euskadi, para el período 2017-2020, se materializa en 8 Objetivos estratégicos que constituyen los ejes prioritarios de actuación. Dichos objetivos se concretan en 20 Líneas Estratégicas con sus correspondientes acciones e indicadores.</p> <p><b>1. MODELO DE GOBERNANZA FORTALECIDO</b></p> <p>1.1 Impulsar una mayor cercanía a las Instituciones Vascas.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistematizar reuniones periódicas con el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos en cada territorio impulsando un mayor nivel de cercanía.</li> <li>• Sistematizar la colaboración con todas las entidades públicas que gestionan el suelo o servicio vinculados a la promoción empresarial para coordinar la oferta y aprovechar sinergias.</li> <li>• Promover y facilitar los medios necesarios para impulsar la realización de eventos o jornadas para difundir en el Parque lo que hacen sus empresas y promover la participación de instituciones en los mismos.</li> </ul> <p><b>2. ATRACCIÓN DE EMPRESAS Y FIDELIZACIÓN DE CLIENTES</b></p> <p>2.1 Promover proactivamente la atracción de nuevas empresas (especialmente en línea con la estrategia de las instituciones y RIS3).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Identificar y captar proyectos estratégicos para Euskadi en el marco de la estrategia global de País, sistematizando metodología de trabajo y acompañando a las instituciones en misiones comerciales y visitas institucionales.</li> <li>• Desarrollar un mapa de capacidades de la RED, poniendo en valor el ecosistema de agentes de cada Parque, identificando mercados de interés y sectores prioritarios en línea con la estrategia de las instituciones y RIS3.</li> <li>• Elaborar un Plan de Desarrollo de negocio que permita el acercamiento a clientes potenciales desarrollando herramientas que faciliten esta acción.</li> <li>• Establecer alianzas estratégicas con prescriptores que favorezcan la atracción de nuevas empresas mediante el desarrollo de una política de incentivos y fórmulas de financiación alternativas</li> </ul> <p>Grado ocupación suelo.</p>



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2. Zorrotzaurre: Proiektua maila instituzionalean adostea, instituzioen arteko lan-mahai bat eratuta (Eusko Jaurilaritza, BFA, Bilboko Udala, Parkea eta Unibertsitateak). Proiektuaren uneko egoera berrikustea, eta Parkeak izan beharreko rola eta esparruaren kudeaketa-eredua definitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Gaur Egungo Campusak Garatzea</b></li> </ul> <p>1. Zamudio Derio: Areari gaitasun handiagoa ematea, bezeroek egin dezaketen espazio-eskariari aurrea hartuta, bi bide nagusi erabilita: Geldo urbanizatzeko prozesua hastea, eta Arestiko 3. egikaritze-unitatea (UE3) urbanizatzea, berriki jatorrizko UE1 egikaritze-unitatetik banandu den honetan.</p> <p>2. EHU Zientzia Parkea Leioan: Campusa garatzeko aurrerapenak egitea, EHUrekiko zuzeneko lankidetzarekin, erabilgarri dauden espazioetara enpresak eta proiektuak erakartzeko, espazio berriak eraikitzea behar dezaketen lehentasunezko proiektuak eta sektore estrategikoak identifikatuz</p> <p>Enpresak. 253</p> <p>Inbertsioa (milioi eurotan). 12</p>		<p>2. Zorrozaurre: Consensuar el proyecto a nivel institucional, con la constitución de una mesa de trabajo interinstitucional (Gobierno Vasco, DFB, Ayto. de Bilbao, el Parque y las Universidades). Revisar el estado actual del proyecto, definir el papel a adoptar por el Parque y el modelo de gestión del ámbito.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Desarrollo de los campus actuales</b></li> </ul> <p>1. Zamudio Derio: Dotar al área de mayor capacidad, anticipando la posible demanda de espacio de clientes por dos vías principales: iniciar el proceso de urbanización de Geldo y urbanizar la unidad de ejecución 3 (UE3) de Aresti tras su reciente segregación de la UE1 original.</p> <p>2. Parque Científico UPV-EHU en Leioa: Avanzar en el desarrollo del Campus, en colaboración directa con UPV-EHU, para la atracción de empresas y proyectos en los espacios disponibles, identificando proyectos prioritarios y sectores estratégicos que puedan requerir la edificación de nuevos espacios.</p> <p>Empresas.</p> <p>Inversión (millones de euros).</p>
